

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Banaketa eta komunikazio-kanalei dagokienez, hauen bitartez lortzen dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko. Hasieratik argi utzi dugun bezala, bezeroa da gure enpresaren abiapuntua, horregatik, kanal ezberdinei erreparatuko diegu proiektua arrakasta bat izateko.

Komunikazio-kanalei dagokionez, gure sare sozialak izango dira nagusienak: *Instagram*, *Twitter* eta *Facebook*. Sare sozialetan gure supermerkatua, asteko eskaintzak eta produktuak promozionatzeaz gain, gure bezeroekin dugun harremana estutuko dugu. Bezeroek iruzkinak uzteko aukera izango dute, gure supermerkatuan ikusi nahiko lituzketen produktuak zeintzuk diren idatziz. Horrez gain, zerbitzu automatizatua webgunea martxan jarriko dugu baita ere, haren bitartez, bezeroek beren eskabideak egin ahal izan izateko. Zalantzak argitzeko bezeroen arretarako zerbitzu pertsonalizatua ere eskuragarri izango dute bezeroek.



Ez dugu online supermerkatuak izango, beraz, banaketa-kanalak gure supermerkatuak berak izango dira, han izango du jendeak gure produktuak gozatzeko aukera. Honen harira, beraz, salmenta-kanalak Euskadiko hiru hiriburuetan jarriko ditugun supermerkatuak izango dira, horietan erosi ahal izateko. Proiektua arrakastatsua dela ikusten badugu, Euskal Herriko beste puntu batzuetan supermerkatuak kokatzeko aukera izango dugu.

Hiru kanal hauek haratago doaz, 5 fasetaz osaturik baitaude. Pertzepzioari dagokionez, jendeak zer behar dituen analizatuko dugu, gure sare sozialetan dituzten iruzkinak behatuz eta gehien erosten diren produktuen analisi bat eginez. Hori egin eta gero, ebaluazioari dagokionez, guretzat eta bezeroarentzat errentagarriak diren produktuak zeintzuk diren analizatuko dugu: zein den merkeagoa erostea, zein produktuk dituen gastu gutxiago eta ea eskaera asko dagoen edo ez. Bi pausu hauek egin ondoren, bezeroak etorriko dira erosketak egitera, eta entrega supermerkatu beran egingo dira. Behaketa sakon hau egin ondoren, salmenta-ondorengoa bezero gehiago etorriko direla ziur gaude.